

4. TEKNIKOKI ARRAZOIZKOAK DIREN AUKEREN INGURUMEN AZTERKETA ETA EGINDAKO AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA.

4.1. LZPan BARNE HARTUTAKO JARDUN PROPOSAMENAK DEFINITZEA

1. Ingurune fisikoa

A.1.1. Lurzoru ez-urbanizagarri guztirako zonifikazio eta kategorizazio orokorra ezartzea.

A.1.2. Babestu, hobetu eta/edo berreskuratzeko eremu berritzat definitutako esparruak mugatzea, gaur egungo Naturgune Babestuak eta Natura 2000 Sarea osatzeko, eta bertako jarduerak dagokien kategorizazioaren arabera arautzea.

A.1.3. Ondarea kontserbatu, berreskuratu eta integratzeko planak lantzea, dagozkien programekin eta horiek garatzeko ekintzekin batera, LZPa garatzeko.

- Baso naturalak kontserbatzeko eta berreskuratzeko plana.
- Basoko espezie mehatxatuen plana.
- Ondare zientifiko-kulturalaren plana eta Naturako elementu bereziak babesteko plana.
- Korridore ekologikoen sarea.
- Leku paisajistiko baliotsuak babesteko plana.
- Habitatak berreskuratzeko plana.
- Hobetu edo berreskuratu beharreko eremuak eta hainbat ingurune degradatu zaharberritzeko plana.
- Leheneratze paisajistikoko plana.
- Azaleko sare hidrologikoa berreskuratzeko plana

2. Azpiegiturak eta zerbitzuak

A.2.1. Kanpoko sarbide-sareko garapen-korridore nagusiak burutzea: N-I autobia, jada egina, eta Beasain-Durango korridorea.

- A.2.2. N-I errepidetik Ordizia, Lazkao eta Beasainerako sarbide-sistema aldatzea, eta N-I errepidearen trazadura berria, Oria ibaiaren eskuin ertzetik, Lazkaoko lotunearen eta Beasaingo Loinaz futbol-zelaiaren artean.
- A.2.3. Bide-lotura berri bat Beasain-Zumarraga korridorearen eta GI-632 errepidearen artean, Santa Lutzia/Anduaga parean, Ezkio.Itsasoko trenbide-sare berriko geltokiaren ondoan, esparruko zentraltasuna indartzeko.
- A.2.4. Tokiko sarbide-sare nagusiko komunikazio-bideak pixkanaka eraldatzea eta hiri-jarraikortasuneko ardatz bihurtzea, burutzen eta inguruko herriguneen arteko konexioak indartzeko. Hiri-zentraltasuneko ardatz edo hiri arteko artikulazio-ardatz bihurtuko dira (zuhaiztiak oinezkoekin-txirrindulariekin batera, eta zuhaitz-ilara eta lorategiz hornitutako zinta berdearen gainean), bakoitzari dagokion esparruaren arabera.
- A.2.5. Ezkio eta Itsaso arteko lotura berria
- A.2.6. Trenbide-sare berria eraikitzea, eta Ezkion bidaiarien geltokia eta salgaien truke-zentroa egitea.
- A.2.7. Gaur egungo Renferen trazadura aldatzea eta igotzea, Ordiziako Bustuntza auzoaren eta Beasaingo azokaren artean, hartara, hiri-burutzan hutsik dauden espazioak edo gutxiegi erabiltzen direnak berreskuratzeko eta hiri-egitura berrian integratzeko.
- A.2.8. Beasaingo eta Zumarragako geltokietako eta inguruetako salgaien bazterguneei dagozkien esparruak eraldatzea eta berritzea, eta eremu funtzionaleko garraioa antolatzeko zentro bihurtzea. Horretarako, esparru horietan kokatuko dira tren-autobus truke-sistemak kokatuko dira, bai eta jarduera gehiago ere, hala nola merkataritza-espazioak eta zerbitzuenak, aparkalekuak, eta abar. Guztiekin, geltokiak zentraltasun-foku izatera iritsiko dira.
- A.2.9. Zuzkidura, saneamendu eta uholdeen prebentzioarekin lotuta landutako arloko plan eta proiektuak burutzea.

3. Asentamenduak

Birkualifikazio-eragiketak

A.3.1. Hiri-eraldaketa eta –leheneratzeko eragiketak, hiritartzat sailkatutako lurzoruen gainean, inguru zaharkituetan eta/edo degradatuetan hiriko ingurumen-kalitatearen baldintzak hobetzeko helburuarekin.

- Beasain-Ordizia-Lazkao ardatzaren (CAF eta San Bartolome barne hartuta) hiri-eraldaketa eta -berritzerako eragiketa, bizitegi, hirugarren sektore eta zuzkidurako lurzoruen eskaintza garrantzitsu bat osatzeko.
- Eraldaketa- eta leheneratze-eragiketak, Indar (Beasain), Rojo y Zaldúa eta Forjas de Zumarraga hiri-eremuetan, Zumarragan, eta Elorza paper-fabrika, Legazpin, bizitegitarako erabilera emateko.

A.3.2. Babes- eta birgaikuntza-eragiketak, asentamendu eta eraikuntza dentsifikatuen eta/edo degradatuen eraikuntza-baldintzak, urbanizazioa eta bizigarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Ordizia, Lazkao, Segura eta Urretxuko hirigune historikoak.

Gehien garatutako erdiguneen hiriguneak.

Bizitegitarako lurzorua

A.3.3. Jada kalifikatuta dauden lurzoruetan garapen berri intentsiboko lehentasunezko jardunak; honakoak ereduak barne hartzen dituen jardunak:

San Juan (Ordizia), S-1 sektorea (Beasain), Iturgaltzaga (Lazkao).

A.3.4. Lurzorua Ondare Publikoa sortzera begira, LZPak Lazkao, Ormaiztegi eta Idiazabalgo udalerrietan adierazitako esparruak mugatzea eta erreserbatzea. Lurzorua horiek eta gaur egun kalifikatuta daudenak izango dira etorkizunean eremu funtzionalean egiten diren etxebizitza babestuen sustapenen oinarria.

Aipatutako eragiketa guztien programazioa epe ertain-luzera begira landu da, eta lehenago aipatutako birsorkuntza-prozesuarekin koordinatuta garatuko da.

A.3.5. Arama, Gaintza, Ataun-San Gregorio, Olaberria herrigunea, Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsasoko landaguneko herriguneetan eta udalerri horietako landa-auzorik esanguratsuenetan edo beste udalerri batzuetan, bizitegitarako eskaintza alternatiboa sustatuko da.

Ekonomia-jardueretarako lurzorua

A.3.6. Eraldaketa-eragiketak, aprobetxamenduak hobetuz, eta egungo erabilerak eremu mistoetara eta hirugarren sektorekoetara bideratzea.

Beasain-Ordizia-Lazkao ardatz inguruko esparrua.

Beasaingo geltokiaren hegoaldeko esparrua.

Castillo hotelaren inguruko esparrua Beasain-Olaberria inguruan

Zumarragako geltokiko salgaietarako bideen esparrua

A.3.7. Beasain-Zumarraga korridorean ekonomia-jarduerarako eremu berriak

garatzerakoan, horietako bat gutxienez sustapen publikokoa izango da. Inguru berean eta orientazio gisa, ahal dela Igartzola ibarraren behealdeko zona salgaien garraioarekin zerikusia duten jardueretarako gordeko da.

- Santa Lutziako errekaetako ibarrei dagokien esparrua, Ezkioko azpiestazioaren eta Alegiko herrigunearen artean.
- Sta. Lutzia-Anduaga erdigune ingurua, Ezkio-Itxaso eta Gabiriako udalerrietan aurreikusitako trenbide-sare berritik gertu.
- Funtsean, trenbide-sare berriaren trazaduratik iparraldera dagoen esparrua, Igartzola ibarraren behe aldearen eta Ezkioko udalerrian aurreikusitako geltoki berriaren artean.

4. Ekipamenduak

Hiri-ekipamenduak.

A.4.1. Egungo ekipamendu-sistema sustatu, hobetu eta biziberritzea, berau antolatzeke jarraitu behar diren arrazionaltasun, hierarkizazio, osagarritasun, zentraltasun eta kualifikaziozko irizpideen arabera.

A.4.2. Ekipamendu berriak burutza-hiriko erdigunean.

- Udalaz gaineko eta eremu funtzionalaren mailari dagokion kultur zentroa.
- Merkataritza-ekipamendua, Eroski-ren leku aldaketarekin koordinatuta, eta Merkataritza sustatzeko planarekin koordinatuta, Beasain-Ordizirako.
- Auzo- eta administrazio-zerbitzuaren ekipamendua barruti judizial berrirako.
- Goierriko Lanbide Eskolaren inguruan zuzkidura-esparru bat gordetzea.

A.4.3. Hiri-inguruko parkeen zuzkidurak.

Antigua-Beloki (Zumarraga), Santa Barbara (Urretxu) eta Urtatza (Legazpi).

A.4.4. Lurraldeko sarguneetara lotutako ekipamenduak.

Lurralderako sargunetzat sailkatutako udalerrien berrekipamenduko eragiketa bereziak.

Ingurune naturaleko eragiketak eta espazio libreak

Hiri-ekipamendua osatzeko edo horren ordezkoko ekipamendua, landa-garapena lortzeko lehen sektoreko jardura osagarriak edo ordezkoak bilatzeko estrategiarekin lotuta.

A.4.5. Aisialdi eta atsedenerako eremuen sistema, ondoren adierazitako tipologiaen arabera:

Eskualdeko atsedeneremuek

Oiangi-Lazkaomendiko atsedeneremua (Ordizia-Lazkao-Zaldibia).

Brinkola-Telleriarte eremua (Legazpi).

Aisialdi eta atsedenerako eremuak lurraldeko leku berezietan.

Altzagarate-Gaintza eremua.

Usurbe eremua.

Kizkitza eremua.

Zamiño-Izazpi eremua.

Irimo eremua.

Arrolamendi-Gorostiaga eremua.

Otaño-Arranoaitz eremua.

Mariñamendi-Aitzleor eremua.

Arantzamendi eremua.

Parke naturalak, Natura 2000 Sarea, Interes Naturalistikoko Espazioak eta hainbat leku:

Aralarko parkea

Aizkorri-Aratz parkea

Murumendi

Gorostiaga

Aralar-Aizkorri korridorea

A.4.6. Ingurumen-ibilbideen sarea.

Biztanleriaren gune nagusiak lurralderako sarguneekin, kultur ondareko elementuekin eta proposatutako atseden-eremuekin lotzen dituzten ibilbideen sistema integratua da.

Sarbide-sare nagusiko oinezkoentzako pasealekuak eta bidegorriak.

Naturaren, ondarearen eta turismoaren inguruko interesa duten elementuen arteko ibilaldi bigunak.

Oinezkoentzako bestelako ibilbide eta zirkuituak.

Azpiegitura bigunak lurraldeko leku berezietan.

5. Lurraldearen kudeaketa

5.1. Plangintzak bat etortzea.

- Beasain-Ordizia-Lazkao antolamendu-ardatza antolatzea
- Zumarraga-Ezkio-Itsaso-Gabiria-Ormaiztegi korridorea garatzea
- Murumendi atseden-eremua antolatzea.
Ordizia-Zaldibi-Lazkao
- Gorostiaga-Murumendi Interes Naturalistikoko Eremuak antolatzea.
Goierriko-Debabarrenako LZPa (Gorostiaga)
Goierri-Urola Kostako LZPa (Murumendi)

4.2. “0” AUKERA EDO EZ ESKU HARTZEKO AUKERA DEFINITZEA

LZParen 2. kapituluan, “Lurralde-eredua lantzeko oinarriak” izenekoan, gaur egun ingurune fisikoak eta asentamenduek duten egoeraren azterketa-diagnostikoa irakur daiteke. Bizitegitarako hiri-eremuak barne hartzeaz gain, ekonomia-jarduerako espazioak eta eskualdeko ekipamendu eta espazio libreen sistema aztertu dira eta, amaitzeko, harremanetarako sistema, azpiegitura nagusien euskarri dena, aztertu da. Azterketa hori abiapuntutzat hartuta, eremu funtzionaleko errealitate sozioekonomikoarekin lotutako beste elementu batzuk aztertu dira halaber, eta bakoitzaren diagnostikoa egin eta ondorio orokorrak atera dira.

Gaur egungo egoeraren diagnostikoak agerian uzten ditu ingurumen, hirigintza eta lurraldeko zenbait arazo. Arazo horiek, aipatutako lehenengo kasuari dagokionez, baliabideen kontsumoaren etengabeko hazkundea ekarri dute, bai eta atmosferara egiten diren poluitzaileen isurketak ugaritzea ere. Ildo horretan, 3.6 epigrafeak, "Ingurumen-diagnostikoa" izenekoak, garbi uzten du gaur egun airearen eta uren kalitateak okerrera egin duela eta lurzoruak eta ingurune naturaleko biodibertsitatea galtzen ari direla; hiri-inguruneari dagokionez, aipatutako arazoen ondorioz, asentamendu-sistemak ez du kohesiorik, lurralde-zatiketa gertatzen da, desorekak, inguru degradatuak eta lurzoru poluituak daude, lurzoruaren eskaintza eta eskariaren eta harrera-ahalmenaren arteko desoreka dago; halaber, hiriko ingurumen-kalitatearekin lotutako beste adierazle batzuk okerrera egiten dute.

Oro har, “0” aukera edo ez esku hartzeko aukera egiten bada, gaur egungo plangintza-sistemari eutsiko zaio; horrela, lurraldean eragina duten ekintza guztiak, tokiko plangintzaren eta arloko politiken bitartez antolatzen dira. Eskualdeari begira aurreikusitako bilakaerak gaur egungo egoera gehiegi aldatuko ez dela erakusten digu, hortaz, horrela jarraituz gero, aipatutako arazo guztien konponbidea atzeratu eta arazoek okerrera egingo dute.

4.3. AUKERAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Honakoak aukerak baloratzeko kontuan hartu diren irizpideak:

- a) Lurralde-egokitasuna: LAAen ereduari dagokionez eta jardun-eremuek dituzten berariazko arazoei dagokienez.
- b) Eraginkortasun sozioekonomikoa: Lurzoruaren baliabideen erabilera arrazoizkoa egin behar da jarduerak ezartzeko orduan.
- c) Ingurumen-eraginkortasuna: Ingurumena hobetzeko edo inpaktua murrizteko.

4.4. AUKERAK ALDERATZEA ETA EGINDAKO AUKERA JUSTIFIKATZEA.

4.2 epigrafean adierazi den moduan, "0" aukera edo ez esku hartzeko aukera egiten bada, lurraldearen plangintza egiteko egungo sistemari eutsiko zaio, eta aipatutako sistemak udal-plangintza eta arloko politiketan garatutako zehaztapenak eta jarduerak ditu oinarrian.

Hala ere, ezin dugu ahaztu mugikortasun gero eta handiagoa, ekonomia- eta gizarte-dinamika berriak, zentraltasun-elementu berrien agerpena, ingurumen-kudeaketa, eta abar, udalerrietako administrazio-mugak gainditzen dituzten prozesuak direla guztiak. Horrela adierazi da, behin eta berriro, LAAetan eta lurralde-mailako beste azterketa batzuetan.

Bestalde, hainbat udal-plangintzaren azterketa egin da eta guztiek garbi utzi dute udalerrien artean koordinazioa eta bat etortzea falta dela, helburuei zein ekintza zehatzei dagokienez. Horrela, beraz, ez dago ingurumen-irizpiderik eta ingurune fisikoari ez zaio tratamendu homogeneoa ematen; era berean, bizitegi eta ekonomia-jardueretarako lurzoruari dagokionez, udalerri bakoitzaren aukera partikularrak lehenesten dira, lurraldearen harrera-ahalmena kontuan hartu gabe. Azpiegitura orokorrak antolatu, zuzkidura eta ekipamenduak aurreikusi eta guztiak garatzeko gaitasun orokorra ez dira batera eta modu osagarrian aztertzen eta, ondorioz, biztanleriak eta jarduerak lurraldean duten banaketaren artean desoreka handiak azaleratzen dira, ez da baliabideen arrazoizko erabilera egiten, eremu jakin batzuetan kongestioa, gainezka egitea eta ingurumen-degradazioa sortuz; horrekin

batera, ez dira behar den bezala aprobetxatzen inguruko beste erdigune batzuk dituzten potentzialtasunak eta osagarritasunak, eta abar. Esanak esan, horrelako egoerak ikusita, administrazioari ezinezkoa zaio hiri-garapeneko prozesu guztiak kontrolatzea eta ezinezkoa zaio, halaber, herritarren aukera-berdintasuna eragiten duten inpaktu ekologikoak eta gizarte- eta ingurumen-inpaktuak kontrolatzea.

Horrenbestez, begi-bistakoak dira udal-plangintzak mugatuta daudela lurraldearen antolamendu integrala egiteko: mugatuta daude, udal-mugak oztopo direlako hiri-arazo jakin batzuk aztertu, ulertu eta gainditzeko (esparru zabalagoak behar dira arazo horiek konpontzeko), eta, mugatuta daude, epe laburrera begira programatzen direlako eta, ondorioz, premiazkoa denari lehentasuna ematen zaio, nahiz eta ez den beti garrantzitsua izaten eta epe luzerako ikuspegia mugatu egiten duen. Era berean, arloko politikak mugatuta egoten dira sarritan, kasu askotan abiarazi beharreko neurrien izaera integratua dela eta.

Horregatik, hain zuzen ere, azterketa eta diagnostikoaren fasean antzemandako disfuntzionaltasunak eta egungo sistemaren mugak gainditzeko, LZPa eremu funtzionaleko udalerri guztietarako hainbat proposamen integratu egiten ditu (lurralde-ereduan zehazten diren proposamenak) eta prozesua garatzeko irizpideak eta arauak ematen ditu, lurralde orekatuago, kohesionatuago eta iraunkorrago bat lortzera bidera.

Gaur egungo plangintza zatikatzailaren aurrean –ez da plangintza bakarra, baina bai nagusia-, eremu funtzionalaren antolamendu orokorra egiteko aukerak abantaila oso garrantzitsu bat ematen digu, izan ere, **izaera integrala** duenez, nahitaez barne hartzen ditu ingurumen-egokitzapena eta –babesa.

Baina horrelako nabarmena den gauza bat baieztatzeko, begi-bistako printzipio teoriko bat jarraitu baino zerbait gehiago egin behar da a priori, eta nahitaezkoa da lurralde-mailako plangintzan, ingurumen-aktiboak optimizatzen behar den bezala bideratuko diren oinarritzko irizpideak jarraitzea oro har, bai eta plangintzak metodologia integratu eta sistematikoa jarraitzea ere. Goierriko LZPa antolatzen irizpideen artean aipa daitezke, eskuarki:

- Lurzorua birsortu ezin daitekeen ondasun unibertsaltzat jotzea; ondorioz, erabilera zorrotza eta zuzena eman behar zaio.
- Lurralde-mailako jardueren arrazoizko ezarpena egitea; hasiera batean, organikoki lotuta daudela ulertuko da.
- Lurraldea berronkatzea; asentamendu-sistema –burutza-hiriak, tarteko erdiguneak eta landa-inguruneko hiri-izaerako erdiguneak- mailaka hierarkizatuko da eta, horretarako, lurzoru-baliabideen osagarritasuna eta, logikoa den moduan, optimizazioa bilatzen duten zehaztapenak behar dira.
- Jarduera gehien duten esparruak, hala nola hiri-izaera dutenak, egitura trinko, antolatu eta garbitzat jotzea. Horrekin lotuta, hiri-kultura hobearen balioak egungo egoerara egokituko dira baina, edozein kasutan, egungo egoera eragiten duten sakabanaketa eta dentsitateak ekidingo dira.
- Landa-habitataren baliorik aitortuenak baloratzea –gizarte osoaren ikuspegitik eta, bereziki, hiriko gizarte modernoaren ikuspegitik, izan ere, gehienek balio ukalezintzat dituzte- lurralde-egituraren sustatu eta integratu beharreko aktibo gisa.
- Azpiegitura-ezarpenak zentzuz kokatzea –jarduera eta asentamenduen sailkapen organikoaren arabera-; horretarako, lurraldeko zerbitzuak integratzeko eta optimizatzeko estrategiak jarraituko dira, ubideak, sareak eta trazadurak metatuko dira, afektazioen ekonomia jarraituko dira eta diseinu kualifikatuak eta ingurunera egokituak egingo dira.
- Lurralde-erabilerak lurraldearen ezaugarriekin bat etortzea, batez ere ezarpen-lurren harrera-ahalmenari eta bertan dauden edo egon daitezkeen ingurumen- eta paisaia-balioei dagokienez.

- Lurralde-mailako ekintzen afektazio nulua edo minimoa ingurumenaren ikuspegitik kalteberen diren eremuen gainean, hala nola esparru natural babestuen gainean eta, bereziki -eta, are gehiago, hiri-izaerako esku-hartzeen kasuan-, ibai-ibilgu eta ibaiertzen gainean, eremu higagarrien eta akuiferoen urrakortasunaren kasuan, kultur balioak dituztenetan, eta abar.

Oinarrizko printzipio horiek jarraituz zehaztu dira Goierriko eremu funtzionalaren lurralde-antolamendua egiteko agiri honek adierazten dituen lerro nagusiak. Agiriak, halaber, lerro nagusi horiekin lotutako irizpideak eta helburu orokorrak zehazten ditu, bai eta, agiriari dagokion definizio-maila kontuan hartuta, bertan aurkezten diren berariazko konponbideak ere. Konponbide horien ingurumen-afektazioak ondorengo kapituluetan barne hartu dira.